

Gifak eta bideoklip zoroak



Gure kultura bisualeko irudietatik abiatuta, *gifak* eta bideo errazak sortuko ditugu, parodia eta umorea tresna kritikoaren estrategia gisa erabiliz.

Helburuak

- Beatriz Sanchezen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Inguruan ditugun irudien inpaktuari buruz hausnartzea, erabilera berriak ematea eta zentzumen berriak ematea.
- Parodia eta umorea gogoeta egiten eta araudia zalantzan jartzen laguntzen diguten sormen-estrategiatzat hartzea.
- Sorkuntza-formatu berriekin esperimentatzea eta internet erakusketa-plataforma gisa erabiltzea.

Aipamenak

Haurren ikusizko kultura - I Congreso Internacional "Arte, Ilustración y Cultura visual en Educación Infantil y Primaria": https://www.youtube.com/watch?time_continue=49&v=Vq2GnEoAgMs&feature=emb_logo

Etxeko bideoklip lantegia - Beatriz Sánchez: http://beatrizsanchez.net/taller_videoclip_casero/

Lantegiak Beatriz Sánchez - SÁLMON'18: <https://www.youtube.com/watch?v=m64AbG3EAno&feature=youtu.be>

Experiencias visuales y cognitivas a través de gifs en Educación Primaria - Martín Caoiro Rodríguez, Alberto Torres Pérez, María del Mar Martínez Oña (Universidad Internacional de La Rioja): <https://www.ugr.es/~reidocrea/8-5.pdf>

Nola egin GIF animatua ordenagailuan edo mugikorrean: <https://www.consumer.es/eu/tecnologia-eu/nola-egin-gif-animatua-ordenagailuan-edo-mugikorrean.html>

Beatriz Sánchezen gif-a - GIPHY: <https://giphy.com/channel/beatrizsanchez>

Las Rosas - Bad Universe - Beatriz Sánchez: <https://beatrizsanchez.net/bad-universe-las-rosas>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Beatriz Sanchezen *gif-etako* batzuk ikusi eta aztertzen ditugu. Horretarako, alderdi hauek hartzen ditugu kontuan:

- Nolako irudiak erabiltzen dituen eta nondik datozen.
- Zer teknika eta tresna mota erabiltzen dituen (teknologikoak eta eskuzkoak/plastikoak).
- Zein diren beren lanak erakusteko kanal edo plataformak.

2. Teknologia eta plataforma horiei ematen diegun erabilerari buruz hausnartzen dugu: nola erabiltzen ditugun gure eguneroko bizitzan, zer helbururekin, zer maiztasunarekin, etab.

3. Irudiek nola eragiten dute gure portaeran, gure nortasunaren eraikuntzan, mundua ulertzeko dugun eran? Horrelako gaiei heltzeko, irakasleak hainbat eremutatik (publizitatea, artea, zinema, serieak, kirola, etab.) datozen irudien aukeraketa bat ekartzen dugu, bi agindurekin: irudi batzuekin identifikatu egingo da eta beste batzuekin ez. Adibideak (*it-girl* baten *selfi-a*; artista baten autorretratuak; futbolaria; bideo-jokoa, seriea edo filma, etab.). Ikuspegi kritiko batetik irudiekin identifikatzera edo ez identifikatzera eramaten duten arrazoiak azaltzen ditugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Banaka, norberaren irudi-aukeraketa egiten dugu: bi aukeratu, batekin identifikatzen garela eta beste batekin ez. Baita guretzat garrantzi berezia duen objektu pertsonal txiki bat ere aukeratzen dugu. Irudiek hainbat arlokoak izan behar dute: artearen mundua, kirola, moda, politika, publikitatea, zinema-marrazkiak, serieak, komikiak, etab.

2. Bateratu egiten ditugu eta gure aukeraketaren arrazoiak azaltzen ditugu.

Testuinguruaren arabera sailkatzen ditugu eta ezaugarri amankomunei buruzko adostasun batzuetara iristen gara (estetikari, funtzioari eta abarri dagokienez). Mapa bisual bat sortzen dugu lan honetarako.

3. Bikoteka, aukeratutako irudiak erabiliz, animatutako *gif-ak* sortzen ditugu. Umorea eta parodia erabiliko ditugu "buelta emateko" edo zentzua nahasteko. Collagearen teknika erabiltzen dugu (moztu eta itsatsi, marraztu edo margotu haien gainean, etab.). Mugikorrak edo ordenagailua erabil ditzakegu, baita *gif-entzako* aplikazio zehatz bat ere.

4. Lau pertsonako taldeetan, atzemandako irudiak eta objektu pertsonalak erabiltzen ditugu, bideo-klip labur gisa fikzio ero samarra sortzeko. Horretarako, *Las Rosas - Bad Universe* ikusten dugu erreferentziatzat. Kontuan hartu beharreko jarraibideak:

- Abesti bat aukeratzen dugu.
- Hainbat ekintza sinple pentsatzen ditugu, atzemandako irudiei eta objektuei dagokienez.
- Ibilbide narratibo txiki bat sortzen dugu: hasiera, garapena eta amaiera. Hainbat aldiz entseatzen dugu.
- Post-it-ak, errotuladoreak, plastilina, aldizkarietako irudiak edo eskura ditugun eguneroko elementuak erabil ditzakegu kontakizunean sartzeko.
- Plano-sekuentzia bakar batean grabatzen ditugu mugikorrarekin edo argazki-kamerarekin.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Gure piezak ikustea gustatuko litzaigukeen pertsoneri buruz (familia/lagunak/eskola-ingurunea/era guztietako publikoak) eta internetek erakusketa-plataforma gisa ematen dizkigun aukerei buruz hausnartzen dugu. Interneteko zein plataformatan edo sare sozialetan partekatuko ditugu gure sorkuntzetako batzuk erabakitzen dugu: eskolako bloga, Whatsapp taldeak, Google Drive, sarbide irekiko plataformak...